



Dublindarrak (Edizio eguneratua)

James Joyce

Euskaratzailea: Irene Aldasoro

Bilduma: Narrazio Saila

Generoa: Narrazioak

SALNEURRIA (BEZ barne): 17,90 €


ISBN: 978-84-9868-689-0

Formatua: 14 x 20,50 cm.

Orrialdeak: 274

Koadernaketa: paperezko azala

ARGITALPEN DATA: 2022ko urtarrilaren 19a



Sinopsia

Joyceren lehen maisu-lana da Dublindarrak. Ez da ipuin-bilduma soila, hamabost ipuin soltezt osatua; batasuna duen liburua baizik. Ipuinak ez dira hiriko estampa edo hiritarren karrikatura batzuk: azaleko itxuraren atzean karga osagarri eta aberasgarri da. Batek beste baten oihartzun egiten du. Hasieratik amaieraraino irakurri eta gero, nabarmen ageri dira liburuaren osotasuna eta zatiek elkarrekin duten harremana. Ordena kronologiko bat ere jarraitzen dute kontakizunek: haurtzaroko istorioak, nerabezarokoak, helduarokoak eta Dublingo bizitza publikokoak.

Dublindarrak liburuan dago Hiria, kontakizunen euskarri eta magal, bere izen propio eta guzti. Eta, hirian, hiritarrak, horiek ere beren izen propioekin. Gizarte oso bat. Hain zuzen ere, Joycek salatu nahi zuen gizarte indargabetu, paralizatu eta ohiturei lotu huraxe. Joycek jende arrunt horren egunerokotasunaren akta jasotzen du ahalik eta objektibotasun handienaz, berak ikusten duen bezala, eta haien jokabidearen juzkurik egin gabe.

Irene Aldasorok Euskadi Saria jaso zuen 2000n, liburu honen itzulpenagatik

Egileaz

JAMES JOYCE (Dublin, 1882 - Zurich, 1941). Familia katoliko abertzale batean sortua. Jesusen Konpainiako ikastetxean ikasi zuen, eta garrantzi handia izan zuen horrek Joyceren literaturan. 1904an Irlandatik aldegin zuen, eta oso gutxitan itzuli zen; Zurichen, Polan, Triesten eta, batez ere, Parisen bizi izan zen. Literatura lanak: Chamber music eta Poems penyeats poesia-bildumak; Exiles antzerki-lana; Dublindarrak narrazio-bilduma; Artistaren gaztetako portreta, Ulises eta Finnegan's Wake eleberriak.

Euskaratzaileaz

IRENE ALDASORO (Idiazabal, 1955). Literatur itzulpenean, besteak beste, James Joyce, Henry James eta D.H. Lawrence lanak euskaratu ditu. **Bitan eskuratu du Euskadi Itzulpen Saria:** 2000. urtean, Joyceren *Dublindarrak* lanari esker, eta 2018an, Emily Brontëren *Gailur ekaiztsuak* lanarekin.